

## *Euskal Udalekuak: sukaldariak*

### *Lazkao, Gipuzkoa*

Aurkibidea

**Biografia**



Euskal Udalekuen historia jasotzeko proiektuaren barruan, sukaldari lanetan ibilitako gizon-emakumeen oroitzenak jaso genituen Lazkaon eginiko mahai-inguru honetan. Joxe Urdangarin, Tere Goikoetxea, Lourdes Usabiaga, Maria Dolores Sukia, Mila Aldasoro eta Maribi Apalategi izan genituen hitzun.

# Zintak

## LAZ-010

- **Proiektua:** Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:** 2012-03-28
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Tere 30 urte sukaldari udalekuetan

- **Erref:** LAZ-010/002
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:00:48. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

#### Laburpena:

<p>Tere: hasiera: 1969an Saturraranera joan zen, mutilekin. Neskak Debara joan ziren urte berean. Antolatzaile eta begirale zenbaiten izenak. Uste du lau urte egin zituztela Saturraranen. 1973an Antzin eta Abaigarren hasi ziren. Tere Abaigarren ibili zen harrezkero sukaldari bezala. Duela 13 urte arte ibili da udalekuetan (1969-1999), 30 urtez, beraz. Uste du Mari Karmen Aranbururen bidez lortu zela Abaigarko etxea.</p>

### 2. Astebururo konponketak egitera

- **Erref:** LAZ-010/004
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

#### Laburpena:

Joxe: Aste Santua erabiltzen zuten konponketak eta prestaketak egiteko. Eta handik aurrera astebururo jarduten zuten udara arte.

### 3. Lurdes hamabost urtez sukaldari Bernedon

- **Erref:** LAZ-010/006
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Lurdes Usabiaga, Lazkaokoa. Besteak baino geroxeago hasi zen. Bernedo izan zen bere udalekua. 15 urte egin zituen sukaldari lanetan. Larunbatetan Jazinto Setien joaten zitzaizen meza ematera. Aurreneko urteetan errekan bainatzen ziren; ura oso hotza zegoen. Gero egin zen igerilekua.

**4. Maria Dolores Antzinen sukaldari bederatzi urtez**

- **Erref:** LAZ-010/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

<p>Maria Dolores Sukia: jaiotzez zaldibiarra, baina Lazkaon bizi izan da. Bederatzi urte egin zituen Antzinen sukaldari, udalekuaren hasieratik bukaeraraino. Igandetan, umeen gurasoak etortzen ziren bisitan. Igerilekuetara Ollobarrenera joaten ziren. Oso giro ona zeukaten; monitore zoragarriak omen zeuden.</p>

**5. Mila Saturraranen, Antzinen eta Urdirotzen**

- **Erref:** LAZ-010/008
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Mila Aldasoro: Lazkaokoa. Saturraranen hasi zen begirale bezala. Etxea zahartuta zegoelako utzi zen Saturraran; umeak zaintzea oso nekeza zelako ere bai. Gogoan du nola ibili ziren Antzin eta Abaigarko etxeak egokitzen. Antzingo etxea tabakoz beteta omen zegoen. Gero Antzinen sukaldari ibili zen, eta hura bukatzean Urdirotzen. Senarraren zuzendaritzapean, elizari zorua konpondu zioten. Sasoi hartan ama hil zitzaion senarrari, baina ez ziren enteratu eta ez ziren hiletara joan.

**6. Ehun eta hogeit hamar txandak Antzinen**

- **Erref:** LAZ-010/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Maribi: Beasaindik Lazkaora etorri zen bizitzera. 76an hasi zen sukaldari Antzinen. Lau urte egin zituen eginkizun horretan eta beste hiru monitore.

Esperientzia aberatsa izan zen. Ume txikiekin egoten zen. Asko izaten ziren, ehun eta hogeirene bai txanda bakoitzean.

## 7. Inspektorearen bisita

- **Erref:** LAZ-010/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Maribi: behin bera eta umeak mendian zirela, inspektorea etorri zen. Senarra zegoen etxean. Paella-ontzi batean ikurrina zegoen marraztuta eta hestuasun handia pasatu zuen, inspektoreak ikusiko zuen beldurrez. Azkenean ez zuen ikusi.

## 8. Lana leku guztietan, eta poltsikoa astindu beharra, euskararen alde

- **Erref:** LAZ-010/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Joxe: haurrek herrietan udan bizi zuten erdal giroari aurre egiteko sortu ziren udalekuak. Horretatik sortu zen izena ere: "Euskal Udalekuak". Lana zegoen alde guztietan, udalekuan bertan zein handik itzulitakoan. Eta poltsikoa astindu beharra ere bai. Baina euskararen alde zenez, gustura egiten zuten.

## 9. Saturrarango gorabeherak

- **Erref:** LAZ-010/016
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:19:38. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Tere: lehen urtean hogeirene egunerako joan eta berrogeirene egin zituen. Elizan zuten jantokia. Lehen urtea zoragarria izan zen, denek denetik egin behar izan zuten. Oporrak pasatzen ari ziren elizgizonak jaten zuten eurekin batera, tartean Bilboko gotzainak. Ondo pasatu zuen. Erosketak egiteko ere ona zen Saturraran, Ondarroa hurbil zuelako. Baina atzera-aurrera gehiegiko lekua zen. Mila: begirale bezala egoteko ez zen leku ona; "bederatzi kontatzen" pasatzen zuen eguna, baten bat galduko zitzaion beldurrez. 71-72 urteak egin zituen, bi azkenak. Tere: lehendabiziko urtea lasaiagoa izan zen.

## 10. Saturraranen lanean ibilitakoak

- **Erref:** LAZ-010/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Lanean ibilitako hainbat izen: Amaia Arrese (sukaldari); Kari (Terekin batera), andereño Arantxa, andereño Mertxe, Mari Karmen Aierbe. Legorretakoak ere asko. Beste hainbat izen. ARGAZKIA ERAKUSTEN ZAIO KAMERARI.

## 11. Tresneria eta janaria erosten

- **Erref:** LAZ-010/019
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Tere: Gamarra aldetik, Gasteiztik, ekarri zituzten sukalde tresnak: zartaginak, kazuelak eta abar. Elorrioko Eroskira joaten zen janaria enkargatzera. Han egiten zen erosketa orokorra, etxe guztietarakoa.

## 12. Bilore, Margola, Iribar eta abarren opariak

- **Erref:** LAZ-010/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:26:16. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

<p>Bilore fabrikak garbiketa produktuak ematen zizkieten, eta baita ontziak eta tresneria ere. Arropen garbiketa Amati&ntilde;oren enpresan (Eibarko Margola tindategia) egiten zen. Iribar Bilboko atezain ohiak patata ekartzen zien. Hau guztia doan, jakina. Eguneroko gauzak herriko dendan edo Lizarran erosten zituzten Antzin eta Abaigarrerako. Bernedon hiltegi baten egiten zuten erosketa asko.</p>

## 13. Istripua Beiren

- **Erref:** LAZ-010/023
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Beire-n Donostiako mutiko batek min hartu zuen hirugarren pisutik erorita. Koman egon zen arren, onik irten zen. Hurrengo urtean ere etorri zen mutila, eta familiak karamelu poltsa handi bat eraman zuen eskerrak emateko. Beste pare bat gertakizun ekartzen dituzte gogora, baina ez omen zen sekula istripu larririk izan.

**14. Etxean bezala jaten zen udalekuetan**

- **Erref:** LAZ-010/024
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Kafesnea eta txokolatea jaten zen gosaritan. Eguerdian, etxean bezala: garbantzua, arroza, makarroiak... Bigarren plater: almondigak, oilaskoa, txerri-txuletak, arrain izoztua. Salda, haragia tomatearekin... Hamaiketakoa ere egiten zuten monitore eta sukaldariek.

**15. Sukaldeak eta tresneria oso txarrak hasieran**

- **Erref:** LAZ-010/025
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:36:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Sukaldeak eta tresneria oso txarrak ziren hasieran, baina gero hobetuz joan ziren.

**16. Haurrak portaera ona normalean**

- **Erref:** LAZ-010/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:32. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Haurrak ondo portatzen omen ziren jateko orduan. Behin Joxek logelatik atera zituen lau ume kanpora, zigortuta. Normala omen da 120 umetatik batzuk ez ondo portatzea. Gainera "haizea hartzen dute" elkarrekin.

## 17. Gibela txapelaren azpian ezkutatu

- **Erref:** LAZ-010/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:38:56. **Bukatu:** 00:39:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Maria Doloresen semari ez zitzaion gibela gustatzen. Ateratzen ziotenean, ogi gainean jarri eta txapelaren azpian ezkutatzen zuen buruan. Bernedoren ez zuten gibelik ipintzen.

## 18. Antzingo medikua sukaldean bisitan

- **Erref:** LAZ-010/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:39:44. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

<p>Antzingo medikua donostiarra zen eta familiarekin bizi zen herrian. Bazkalaurretik bisita egiten zien sukaldere; jana probatzea gustatzen zitzaion. Ez zuten inoiz janaren kezarik izan. Olioarekin izan zuten inoiz arazoa. Txarra ekartzen zieten, sojazkoa edo.</p>

## 19. Askorentzat janaria prestatzea ez da zaila

- **Erref:** LAZ-010/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:41:13. **Bukatu:** 00:42:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Erraz ikasten omen da jende askorentzat janaria prestatzen. Oilasko hankekin prestatzen zuten salda.

## 20. Patatak zuritzeko makina

- **Erref:** LAZ-010/031
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:42:26. **Bukatu:** 00:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Antzinen bazen patatak zuritzeko makina. Aurrerapen handia, batez ere patata erreak edo leka-patatak ipini behar zirenean.

**21. Urdirotzen gau-langileen bisita**

- **Erref:** LAZ-010/032
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:43:26. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Xabierrek dio Urdirotzen ez zegoela patata zuritzekorik. Milak, gaueko langileak ibiltzen zirela Urdirotzen (guardia zibilak). Hozkailua, sua eta beste gauza batzuk harrapatu zizkieten.

**22. Giro ona begirale eta sukaldarien artean**

- **Erref:** LAZ-010/034
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Joxe: giro onaren oinarria euskararen alde lanean ari ziren kontzientzia zen, batetik; umore ona eta parranda giroa, bestetik. Milak gertakizun barregarri bat kontaktzen du. Joxek Estepani galdetzen dio ea nora joaten ziren gauez. Lurdesek lorik hartu ezinda egoten zirela semea-eta inguruko festetara joaten zirenean puntaraino betetako autoan. Elkarri ura botatzea, esaterako, oso txantxa ohikoa zen. Larunbatetako afaria parranda handia izaten zen.

**23. Udalekuetatik pasatutako jende famatua**

- **Erref:** LAZ-010/036
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:48:57. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Jende ezaguna begirale edo haur gisa egondakoa: Joxean Kerejeta, Jose Ramon Soroiz, Fermin Aramendi, Juan Kruz Lakasta, Iñaki Eizmendi, Kike Amunarriz, Eguzkitze...



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com